

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Pobreziaren aurkako Borroka Sareak sustatutako ‘Pobreziaren aurka ideia distiratsuak’ kanpainara atxiki da Gobernua

*Exekutiboak beharrezkoa deritzo bazterketa egoeran dauden pertsonak baztertuak izan ez daitezen borroka egitea*

Asteazkena, 2019.eko martxoak 13

Gobernuak, gaurko bilkuran, Nafarroako Pobreziaren aurkako Borroka Sareak sustatutako ‘Pobreziaren aurka ideia distiratsuak’ kanpainari atxikitzea onartu du. Ekimen honen helburua pobreziaren aurka aktiboki borroka egitea da, hausnarketarako eremu egokia bultzatzeko, pobrezia eta bazterketa egotearen ardura pertsona horiei egozten dieten, pobreziaren fobiaren (aporofobiari) diskurtsoei aurre eginez.



Laparra lehendakariordea, Eskubide Sozialetako arduradun eta Pobreziaren aurkako Borroka Sareko kideekin, kanpainaren kartelarekin.

Diskurtso horien aurrean, Gobernuak beharrezkotzat du “bazterketa egoeran dauden pertsonetako errefusa eragiten duten zurrumurru edo estereotipoen aurka borroka egitea, eta pertsona guztien parte-hartzea osotasunean parte-hartzea oztokatzen duten trabak ezabatzea”. Gainera, “pertsona guztien duintasuna arau politikoko eta gizarte bakerako oinarri” moduan ulertzen du.

Akordioan jaso denez, “Nafarroako Gobernuak gizarte justu eta ekitatiboa sortzeko neurriak bultzatzeko erakunde bultzatzailea izan behar du”. Horregatik, gizarte talde, erakunde eta gizarte orokorrean kanpaina horretan parte hartzera animatzen ditu, adierazpena sinatuz eta aktiboki parte hartuz, pobrezia eta gizarte bazterketari aurre egiteko laguntzarriak izan daitezkeen ideiak proposatuz.